

Year	2010	2011	2012	2013
1	10	10	10	10
2	10	10	10	10
3	10	10	10	10
4	10	10	10	10
5	10	10	10	10
6	10	10	10	10
7	10	10	10	10
8	10	10	10	10
9	10	10	10	10
10	10	10	10	10
11	10	10	10	10
12	10	10	10	10
13	10	10	10	10
14	10	10	10	10
15	10	10	10	10
16	10	10	10	10
17	10	10	10	10
18	10	10	10	10
19	10	10	10	10
20	10	10	10	10
21	10	10	10	10
22	10	10	10	10
23	10	10	10	10
24	10	10	10	10
25	10	10	10	10
26	10	10	10	10
27	10	10	10	10
28	10	10	10	10
29	10	10	10	10
30	10	10	10	10
31	10	10	10	10
32	10	10	10	10
33	10	10	10	10
34	10	10	10	10
35	10	10	10	10
36	10	10	10	10
37	10	10	10	10
38	10	10	10	10
39	10	10	10	10
40	10	10	10	10
41	10	10	10	10
42	10	10	10	10
43	10	10	10	10
44	10	10	10	10
45	10	10	10	10
46	10	10	10	10
47	10	10	10	10
48	10	10	10	10
49	10	10	10	10
50	10	10	10	10
51	10	10	10	10
52	10	10	10	10
53	10	10	10	10
54	10	10	10	10
55	10	10	10	10
56	10	10	10	10
57	10	10	10	10
58	10	10	10	10
59	10	10	10	10
60	10	10	10	10
61	10	10	10	10
62	10	10	10	10
63	10	10	10	10
64	10	10	10	10
65	10	10	10	10
66	10	10	10	10
67	10	10	10	10
68	10	10	10	10
69	10	10	10	10
70	10	10	10	10
71	10	10	10	10
72	10	10	10	10
73	10	10	10	10
74	10	10	10	10
75	10	10	10	10
76	10	10	10	10
77	10	10	10	10
78	10	10	10	10
79	10	10	10	10
80	10	10	10	10
81	10	10	10	10
82	10	10	10	10
83	10	10	10	10
84	10	10	10	10
85	10	10	10	10
86	10	10	10	10
87	10	10	10	10
88	10	10	10	10
89	10	10	10	10
90	10	10	10	10
91	10	10	10	10
92	10	10	10	10
93	10	10	10	10
94	10	10	10	10
95	10	10	10	10
96	10	10	10	10
97	10	10	10	10
98	10	10	10	10
99	10	10	10	10
100	10	10	10	10

Euroeskualdearen
Batzarra,
Iruña 2018ko
ekainaren 29a.



Sarrera



Lurraldeen Lankidetzarako Europako Talde (LLET) moduan sortu zen Euroeskualdea, europar ikuspegian oinarrituta mugan dauden hiru eskualdeetan lurralde estrategia bat ezartzeko xedearekin. Ikuspegi horretatik abiatuta 2014-2020 aldirako Euroeskualdearen Plan Estrategikoa sortu zen, lau lehentasun handiren eta berrogei ekintza zehatzen inguruan ardaztua, eta plan horren bilakaera izan da urtean zehar LLETaren jarduera zedarritu duena.

2018an estrategia eguneratu egin zen lurraldearen egoera berria kontuan hartzeko; Nafarroako Foru Komunitatea atxiki ostean eta Frantziako eskualdeei eragin zien lurralde erreformaren ondoren, Akitania, Limousin eta Poitou-Charentes eskualde berean batuta suertatu zirenean.

Dokumentu estrategikoa eguneratzerako unean, haren funtsezko orientabideek prozesu horretan murgildutako eragile askoren onarpen zabala jaso zuten.

Euroeskualdearen erronka bere ekintzak eskala geografiko berri honetan zehar hedatzea da: ia 9 milioi biztanle dituen lurralde batean, biztanleria, azalera eta BPGri dagokionean Europar Batasunaren ia %2 den honetan. Aipatu behar da Euroeskualdeak beste erreferentzia-dokumentu bat ere eguneratu duela, « Euroeskualdea zenbakitan » izenekoa, lurralde hau europar adierazle batzuekin alderatzen duen estatistika datuen bilketa.

Euroeskualdearen Biltzarrek 2018ko ekainaren 29an onartu zuen Iruñean Estrategiaren eguneratze txostena, hiru agintaritza eratzaileen presidentek bertan zirela.

2018ko ekintzen txostenak honako puntu hauek lantzea proposatzen du:

- 2014-2020 aldirako Euroeskualdearen Garapen Estrategia gauzatzea
- finantza tresnen balantzea
- 2018ko finantzen balantzea

Aipatzeko da Euroeskualdeak, lehenengo aldiz, hiru proiektu aldi berean kudeatu zituela, aurrekontu orokor gisa miloi bat euroko dirulaguntza erabiliz.



Aurkibide

Sarrera.....2

1. 2014-2020 aldirako Euroeskualdeko Garapen Estrategiaren bilakaera6

1.1 Euroeskualdeko herritartasuna7

- Eleaniztasuna.....7
- Kultura.....8
- Gazteria - Kirolak9



1.2 Jakintzaren Ekonomia, Berrikuntza eta Enpresa Lehiakortasuna10

- Unibertsitateko lankidetza
eta mugikortasuna10
- Ikerketa - Berrikuntza
Ekonomia Garapena11
- Enplegua.....13
- Ikaskuntza sistemaren egituraketa
Euroeskualde mailan.....15



1.3 Lurralde jasangarria16

- Mugikortasuna eta Garraioa.....16
- Nekazaritza - Nekazaritzako
Elikagaiak - Basogintza.....18
- Ingurumena.....19
- Turismoa.....19



2. Finantza instrumentuen balantzea20

2.1 Akitania-Berria Euskadi Nafarroa proiektu-deialdia21

2.2 Euroeskualdeko lankidetza estrategikoak22

3. Finantzen balantzea.....24

1

2014-2020 aldirako Euroeskualdeko Garapen Estrategiaren bilakaera

1.1 Euroeskualdeko herritartasuna	7
Eleaniztasuna	7
Kultura	8
Gazteria - Kirolak	9
1.2 Jakintzaren Ekonomia, Berrikuntza eta Enpresa Lehiakortasuna	10
Unibertsitateko lankidetza eta mugikortasuna	10
Ikerketa - Berrikuntza Ekonomia Garapena	11
Enplegua	13
Ikaskuntza sistemaren egituraketa Euroeskualde mailan	15
1.3 Lurralde jasangarria	16
Mugikortasuna eta Garraioa	16
Nekazaritza - Nekazaritzako Elikagaiak - Basogintza	18
Ingurumena	19
Turismoa	19



Unibertsitateekin
hitzarmenaren
sinadura,
Donosita 2018ko
maiatzaren 2a.

1.1 Euroeskualdeko herritartasuna

Eleaniztasuna

Euroeskualdeko herritartasuna eraikitzeko eta bateratzeko unean, hizkuntza da oztipo nagusietako bat. Euroeskualdeak, 4 hizkuntza ezberdin elkarrekin bizi diren lurraldeak, elkarren arteko ezagutza sustatzen du. Euroeskualdeko Plan Estrategikoaren eguneraketak eta «Empleo» proiektua burutu izanak, bizilagunaren hizkuntzaren ezagutza eskasa azaleratu izanagatik nabarmendu zen hizkuntza-diagnostikoa eskaini zuenak, indartu egin dute ardatz hori.

Eleaniztasuna, eta hiru eskualdeetako hizkuntza komuna den heinean euskararen garapena ere bai, Akitania-Berria Euskadi Nafarroa proiektu-deialdiak babesten dituen proiektuen muina da. Gainera, **Euroeskualdeko hizkuntzen ikaskuntza eta erabilera** zeharkako erronka da proiektu-deialdi honetan eta hainbat ekimenen bidez sustatu da helburu hori: hizkuntza-trukaketak, trebakuntza ikastaroak, lantegiak eta mintegiak.

Adibide bat aipatzearren, "Gaztesare" proiektua, Euskal Herriko Unibertsitateak CNRS IKER ikerketa-zentroarekin eta Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin elkarlanean zuzendu duena, sare sozialetan gazte euskaldun elanitzek dituzten hizkuntza praktika berriak aztertze xedea duen ikerketa proiektua daukagu. Akitania Berriko, Euskal Herriko eta Nafarroako akademiko gazteek hizkuntza praktika berri horien eta euskaldun gazteek hizkuntza eta dialekto ezberdinen inguruan dituzten printzipio eta balioen arteko balizko lotura aztertuko dute.



ESKOLA
FUTURAKO
bigarren
promozioaren
jaurtiketa.
Baiona, 2019ko
otsailaren 7a.



Eleaniztasunaren esparruan, POCTEFak finantzaturako proiektu bat garatzen ari da Euroeskualdea, 2017an hasia, lehen hezkuntzako irakasle elebidunak trebatzeko helburua daukana, frantsesa eta euskara menperatuko dituztenak: ESKOLA FUTURA (Irakaslegaiak AEN). Irakasle elebidun franko-euskaldun kopurua handitzeko beharretik sortutako proiektu honek mugaren bi aldeetako ikasle gazteei aukera ematen die frantses edota euskara maila egokia eskuratzeko eta eskola elebidunetako irakasleen oposaketetara aurkezteko. ESKOLA FUTURA proiektuak anbizio handiko hiru helburu ditu: alde batetik, Iparraldeko irakasle elebidunen beharra asetzea; bestetik, Euroeskualdeko hizkuntzen ezagutza indartzeko tresna erabilgarria izatea; eta azkenik, gazte-enplegua sustatzea.

Galdeketa eginez eta Euskararen Erakunde Publikoarekin (OPLB) eta Okzitaniako Erakunde Publikoarekin (OPLO) lankidetzan sortu den proiektu hau Pirinioen bi alderdietako lau unibertsitateen elkartze sendoa oinarritzen da: Bordeleko Unibertsitatea eta bere Akitaniako Goi-mailako Irakaskuntza eta Hezkuntza Eskola (ESPE), Bordeaux-Montaigne Unibertsitatea eta bere « Frantsesa Atzerriko Hizkuntza » (DEFLE) Ikasketa Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

Lau unibertsitate parte-hartzaileek, LLETarekin eta Euskararen Erakunde Publikoarekin batera, **lankidetzat hitzarmen zehatz** bat sinatu zuen 2018ko maiatzaren 2an, proiektu honen esparruan etorkizuneko jarduerak modu bateratu batean burutzea ahalbideratzen duena, administrazio eta finantza alorretako koordinazioa sustatuz eta erabakiak batera hartzeko gidaritzat batzorde bat eratuz.

Kultura

Lehenengo formakuntza ikastaroa 2018ko irailean hasi zen. Lehenengo promozioa Nafarroako Unibertsitate Publikoko eta EHUKo hiru campusetako hamaika ikaslek eta Akitaniako hainbat unibertsitatetako zazpi ikaslek osatzen dute: lehenengo multzokoak Bordelen daude frantsesa ikasten eta bigarrengoak, berriz, Bizkaian euskara ikasten. 2019-2020 ikasturtean bigarren promozio bat jarriko da abian. **Hamabi plaza eskainiko dira euskara trebakuntza maila egokia eskuratu nahi duten gazteentzat. Izen-emateak apirilaren 8tik maiatzaren 13ra bitartean egingo dira honako esteka honetan www.eskola-futura.eu.**

Bruselako Eskualdeen eta Hirien Aste Europarraren barruan, proiektu hau adibide gisa aurkeztu zuten « Hizkuntza Gaitasunak Europar Hezkuntza Eremuan » mintegian (*Language competences in the European Education Area*).

Era berean, okzitaniaren erabilera garatzeko inkesta soziolinguistikoa egin behar da Okzitaniako Erakunde Publikoarekin lankidetzan. Ikerketa hori okzitaniaren erabileran eta irudikapenetan zedarririk da (hiztun kopurua, erabilera motak eta transmisioa, biztanleriaren joerak...) okzitaniara hitz egiten den Akitania Berriko, Okzitaniako eta Val d'Aran eskualdeetako eremuetan.

Hizkuntzen eta Ondarearen Kongresua

Azaroaren 8 eta 9an « Hizkuntzak, Ondarea, Identitateak. Hezkuntzaren Ikuspegia » lehen nazioarteko hitzaldia egin zen Donostian. Euskal Herriko Unibertsitateak, Bordeleko Unibertsitateko ESPE eskolak, Nafarroako Ondare Materiagabearen Artxiboaren Katedrak eta Historia eta Hezkuntza Ondarea Aztertze Espainiar Elkarteak antolatutako eta Euroeskualdearen laguntza jaso zuen kongresu horrek identitatearen, hizkuntzaren eta hezkuntza ondarearen arteko lotura jarri zuen mahai gainean.

Euroeskualdeak proiektu-deialdien, lankidetzak estrategikoen eta funtsezko animazio baliabideen bidez (talde teknikoaren esku daudenak) gauzatzen dituen ekintza kulturalak eskualde honetako interesdunen nahiak asetzeko helburua dute. LLETa izan zen 2017ko proiektu-deialdian hautatutako proiektu kulturalen jarraipena egiteko ardura eta baita 2018ko 1. proiektu-deialdia abiarazteko ardura izan zuena, eta gai honek garrantzi handia izan zuen bietan.

Era horretan, lurralde osoan zehar 11 proiektu kultural hautatu dira lankidetzak sustatu eta indartzeko, esaterako, dantzaren, antzerkiaren edota musikaren alorrean sorkuntza eta zabalkuntza egonaldiaren bidez edota ikuskizunaren bidez.

Bestalde, proiektuen arduradunek erakusleio bat izateko abagunea izan zuten 948 Merkatuaren bigarren edizioan, LLETaren postuan.

Gainera, 948 Merkatuaren bigarren edizioak esparru bat eman zion sormenezko kultura eta industriei buruzko Focus Group taldeari (bertan izan ziren eskualde mailako hainbat agintaritzak eta agentziak), aurrean beste bi euroeskualde ekarri: Mosa-Rhin (Alemaniako, Belgikako eta Herbehereetako bost eskualdek osatua) eta Pirinio-Mediterraneo eskualdea (Katalunia, Balear Irlak eta Okzitania). Testuinguru horretan, Bruselan kokatuta dagoen Akitania Berriko Bulegoak « Europa Sortzailea » programa aurkeztu zuen, bertaratutako eragilearen arteko lankidetzak gauzatzeko esparru funtzioa izan zezakeena.



ESKOLA FUTURA
proiektuko
ikasleen harrera
unibertsitateetan.





948 Merkatuko
bigarren edizioa,
Iruña 2018ko
azaroaren 21, 22
eta 23a.



Gazteria - Kirolak

2014-2020 aldirako Euroeskualdearen Plan Estrategikoaren eguneraketak euroeskualde mailan kulturaren eta mugikortasunaren garapena lehentasun bihurtzea sustatu zuen.

Helburu hori lortu zuen 2018. urtean zehar « **aquitaine.eus: Akitaniako euskal kultura-sortzaileen mugikortasun eta zabalkunderako eta Euroeskualdearen barruan mugaz gaidiko harremanak sortzeko** » lankidetza estrategikoak (Etxepare Euskal Institutua, Euskal Kultur Erakundeak eta Nafarroako Gobernuaren Kultura Zuzendaritza) ekitaldi ezberdinetan parte hartuz, esaterako, Donostiako D-FERIAn, Burdeleko ESCALE DU LIVREn, Leioako UMORE AZOKAn, Libourneko FEST'ARTSen, Burdel-Cenoneko Le Rocher de Palmer-en eta bereziki 948 Merkaturan.

Era berean, lankidetza estrategikoen alorrean, « **ZUBIAK** » mugaz gaidiko irratsaioak bere irrati programazioarekin jarraitu zuen 2018an (Euskadi Irratiaren, France Bleu Euskal Herriren eta Euskalerrria Irratiaren babesarekin).

Alor honi dagokionez, proiektuen deialdiak Euroeskualdeko ikasle gazteen arteko mugikortasun eta trukaketa proiektu ezberdinak hautatu ditu, eta baita lurraldeko kirol-elkarteen artean ere. Ildo beretik, beste lankidetza hitzarmen bat sinatu zen Euskadiko Errugbi Federazioaren (FVR), Nafar Rugby Federakuntzaren (FNR) eta 64 Departamentuko Errugbi Batzordearen (CD64) artean, hiru lurraldeetako errugbi jarduera amateurraren egiturazko integrazioan oinarrituta, euskal errugbiarentzat mugaz gaidiko ekintza-esparru berri bat ezartzeko.

1.2 Jakintzaren Ekonomia, Berrikuntza eta Enpresa Lehiakortasuna

Euroeskualdearen jardueraren ardatz nagusi hau Plan Estrategikoaren erdigunean ezarri zen, eskualdea osatzen duten lurraldeen itxaropenak biltzeko xedearekin. Lan hori 2018an zehar alor ezberdinetan burutu genuen.

Unibertsitateko lankidetza eta mugikortasuna

Euroeskualdearen Estrategia eguneratzea ez ezik, LLETak lurraldeko 11 unibertsitateen arteko aliantzak (250.000 ikasle baino gehiago ordezkatzen dituzte) indartzeko estrategiarekin darrai, alor honetan dituen bi lankidetza estrategikoak garatu eta berritzeaz gain.

AEN sarearekin sinatutako lankidetza hitzarmenak Euroeskualdeko unibertsitate ikasle bekadunen hirugarren promozioa gauzatzeko aukera eskaini du. Beken eskaera, hautaketa eta administrazio eta finantza jarraipena AquiMob tresnaren bidez egin da, Akitania Berriko mugikortasun dirulaguntza ezberdinak bateratzen dituen leihatila bakarra. Euskadiko eta Nafarroako erakundeak tresna honetan txertatu dira eta trebakuntza jaso dute hori erabiltzen ikasteko, bide horretatik eskualdeen arteko praktika administratiboen trukaketa ahalbideratuz.

Euroeskualdeko beka honen hirugarren edizioan (2018-2019 ikasturtean) diru-kopurua 60.000 €koa izan da; kopuru horretako 56.400 € norbanakoen beken finantzaketara bideratzen da, hilabetean 300 €ko laguntzak emateko.

2018ko irailaren 19an bilkura bat antolatu zen Bordelen, bertan ikasle bekadun berriek Euroeskualdeko eta Akitaniako Batzordeko ordezkariarekin hitz egiteko aukera izan zezaten. Ekintza berrien bidez sistema hau aberastea eta ikasleek mugaz gaindiko ikasleentzako mugikortasun programa honen funtzionamendua, erronkak eta eskaintzen dituen aukerak hobeto ulertzea da helburua.



Bekadun ikasleen
harrera Bordelen,
2018ko irailaren
19a.

2018an EUSKAMPUS/Bordeleko Unibertsitatearen (Euroeskualdearen Nazioarteko Bikaintasun Campusa) lankidetza estrategikoari jarraipena ematen lan handia egin zen, zeinaren helburuetako bat 9 milioi biztanleko Euroeskualdeko eskala berezi honetan bikaintasun sektoreak eratzea den.

2018an baita ere « *EUSKAMPUS Bordeaux Eguna* » (2018ko azaroaren 30ean) antolatu zen, 350 ikasle, irakasle eta administrazio langile batu zituen.

Bordeleko Unibertsitateak eta Euskampusen 2014. urtean euroeskualdearen esparruan hasi zuten elkarlan honi 2018an Diálogo saria eman zitzaiola azpimarratu behar da.



Euskampus-
Bordeaux eguna,
Donosita 2018ko
azaroaren 30a.

DIALOGO 2018
sariaren banaketa
Euskampus
eta Bordeleko
Unibertsitateari,
Paris 2018ko
azaroaren 8a.



Ikerketa - Berrikuntza Ekonomia Garapena



Euroeskualdeak eremu honetan ere badihardu, eta euroeskualde mailako bere estrategiak identifikatutako eta 2018ko eguneratze prozesuan berretsitako 6 sektore gakoei ematen die lehentasuna:

- Aeronautika eta garraioa, abangoardiako ekoizpena
- Osasuna / Bio-osasungintza
- Nekazaritza eta nekazaritzako elikagaien industria
- Eraikuntza jasagarria, zura
- Energia berriztagarriak
- Itsasoko eta itsasertzeko baliabideak

LLETak lehentasunezko alor horietan sortu nahi ditu balio-kateak euroeskualde mailan, bai Euroeskualdeko proiektu-deialdien bidez edo POCTEFaren bidez, esate baterako, « *COMPÉTITIV'EKO* » kasua bezala, mugaz gaidiko 3 polo eraiki nahi dituen proiektua: « *BIG DATA* », « *INNOV'MEDICA* », « *ADDITIVALLEY* ».

Lan hori, ekonomia ikuspegi integratuago bat defendatuz, mugaz gaidiko espazioaren kohesio ekonomiko eta soziala indartzeko nahiaren barruan kokatzen da.

« **INTERC DIGITAL 2018** » lankidetzak **estrategikokoaren** esparruan (Interclustering), Bihartean, Orkestra eta Nafarroako Ganberak gauzatu dutena, aurtun enpresa digitalak jarri dira erdigunean eta, ildo horretatik, bilkura bat antolatu zuten BIDARTEko IZARBEL polo teknologikoan 2018ko maiatzaren 16an. INTERC DIGITAL bilkura horretan ia 40 enpresa eta eragile ekonomikok hartu zuten parte, Euroeskualde honetako hiru klusterrak tartean: « *GAIA* », « *ATANA* » & « *Pays Basque Digital* ».

Era beran, Akitaniako Enpresen Sortzaileek (CREA), Nafarroako Aholkularitza Enpresen Elkartek (ANEC) eta Espainia iparralderako Frantziako Merkataritza eta Industria Ganberak antolatutako (Euroeskualdearekin eta Bihartean-ekin elkarlanean) **Mugaz Gaidiko 3. Networkinga** burutu zen Pau, Baiona eta Bidarten urriaren 18 eta 19an, eta 3 lurraldeetako 50 enpresek hainbat « hitzordu azkarren bidez » elkar ezagutzeko aukera izan zuten, etorkizunean harreman ekonomikoak sortzeko aukera itzela.

2018an, aurrez hautatutako lankidetzak estrategikoen jarraipena egitean eta gauzatzean ardaztu zuen LLETak bere lanaren zati handi bat, eta 2018ko proiektu-deialdiaren esparruan bost lankidetzak berri hautatu zituen.

• Nekazaritzaren sektorean eta nekazaritzako elikagaien industrian

DANEGAZ

Bazkideak

Hazi (Euskadi)
INTIA (Nafarroa)
Idiazabal JDB (Euskadi)
Ossau Iraty JDB (Akitania-Berria)
Fédération Régionale Caprine (Akitania-Berria)
Erronkari JDB (Nafarroa)

Aurrekontua 136.950 €

Dirulaguntza 65.236,13 €

Akitania Berriko, Euskadiko eta Nafarroako lurralde ezberdinetan gazta Jatorri Deitura Babestupean (JDB) ekoizten duten eragileen sare bat sortzea da helburua, balio-katean dituzten beharrian eta erronka komunak identifikatu, jakintza eta jardunbide egokien trukaketa erraztu eta berrikuntza eta lankidetzat proiektuen bizkortzea sustatzeko.

TOKI-POMMES

Bazkideak

UPNA (Nafarroa)
INTIA (Nafarroa)
Neiker (Euskadi)
Conservatoire Végétal Régional d'Aquitaine (Akitania-Berria)

Aurrekontua 92.880 €

Dirulaguntza 44.243,39 €

TOKI-POMMES Euroeskualdeko eremuetara egokituta dauden bertako sagarrondo barietateak identifikatu eta hautatu nahi ditu, produktu zehatz batzuen garapena bultzatzeko eta horren bidez Euroeskualde honetako fruitudun produktu laborantzat jasagarriak garatzeko oinarriak ezartzeko.

• Osasunaren eta bio-osasungintzaren sektorean

CARDIOREG

Bazkideak

CIMA (Nafarroa)
Viscofam SA (Nafarroa)
Université de Bordeaux (Akitania-Berria)
Urtasun (Euskadi)

Aurrekontua 150.000 €

Dirulaguntza 71.452,50 €

CARDIOREG-ek gaur egun bihotzeko gaixotasunei ematen zaien tratamendua aztertzen dihardu, Euroeskualdearentzat interes estrategikoa duen gaia hain zuzen ere, eta miokardioaren infartua jasan dutenentzat zelula birsortzaileen terapia bat garatzeko asmoa dauka, sendagai eraginkorragoa litzatekeena eta kostu txikiagoa izango lukeena.

• Aeronautikaren eta abangoardiako ekoizpenaren sektorean

FCOMP

Bazkideak

Naitec (Nafarroa)
ESTIA (Akitania-Berria)
Microlan (Euskadi)
HEGAN (Euskadi)

Aurrekontua 150.500 €

Dirulaguntza 71.452,50 €

Abangoardiako ekoizpenean, material konposatuaren ezaugarriei eta haien erabileraz baliatuz, berrikuntzak aeronautikaren industriari osagai berri arinagoak, integratuagoak eta eraginkoragoak sortzeko aukera emango dio. Berrikuntza hori balio-katean hiru lurraldeek duten aurretiazko esperientzia osagarrian oinarritzen da.

DARWIN

Bazkideak

Mondragon Goi Eskola Politeknikoa (Euskadi)
TEDCAS (Nafarroa)
ESTIA (Akitania-Berria)

Aurrekontua 99.926,08 €

Dirulaguntza 47.599,79 €

« MGEP », « ESTIA » eta « TedCas »ek osatzen duten partzuergoak eskualdeen arteko lan zentro bat sortu nahi du robotika kognitiboa elkarlanean ikertzeko. Robotek gizakiarekin ingurune erreal eta fidagarri batean elkarlanean aritzeko beharrezko gaitasunak txertatzea ahalbideratuko duten teknologia tresnei buruzko ikerketa bat burutuko da.

• Ekonomia sozial eta solidarioari buruzko Focus Group taldea

2019ko otsailean ekonomia sozial eta solidarioari buruzko Euroeskualdeko lantalde berri bat sortu zen. Talde horren lehenengo bilkura otsailaren 14ean egin zen Iruñean Nafarroak gidatzen duen ekonomia sozialari buruz, S3 Espezializazio-Plataforma Tematikokoaren esparruan. Taldearen xedea « eskualdearen » arazo, erronka edota euroeskualde mailan egin daitezkeen balizko lankidetzak edo ekintzak aztertzea eta iritziak trukatzeko da.



Enplegua

EMPLEO

Euroeskualdearen lehentasun honek aldaketa esanguratsuak izan ditu 2018. urtean EMPLEO proiektuaren amaierarekin, POCTEFAK finantzatutako mugaz gaindiko europar proiektua zena.

EMPLEO proiektua amaitzeak mugaz gaindiko enpleguaren lehenengo ikerketa egiteko aukera eskaini du. Eskualdeko enplegu-arroaren gaur egungo errealitatea zer nolakoa den identifikatzea izan zen abiapuntua, aztertu gabeko eta, hein handi batean, ezagutzen ez den lurralde batean. Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeko mugaz gaindiko enpleguaren gaian erreferentzia izatea da lan honen helburua.

Hori dela eta, mugaz gaindiko enpleguaren diagnostiko horrek egoeraren ikuspegi panoramiko bat, estatistik eta soziologia eta enpleguarengan dituen ondorioak azalera ditu. Mugaz gaindiko enpleguaren erradiografia batez gain, EMPLEO proiektuak hiru eskualdeetan enplegu talde indartsu bat garatzeko zailtasun, indargune eta osagarritasun nagusiak identifikatu zituen, eta azkenik gomendio sorta bat proposatu zuen enplegu-arroa hobetzeko asmoarekin.

Gainera, Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeak (NAEN) benetako enplegu-arro bat egituratzeko bere helburu horretan mugarri garrantzitsu bat ezarri du: webgune berri bat zabaltu du hiru lurraldeetako langileentzat eta lan bila dabiltzanentzat (besteren konturako langileak edota autonomoak) informazio baliagarria partekatu dezaten. Webgunearen ataria sareko sarbide bat da mugaz gaindiko langileek (izango direnek) mugaren bestaldeko lan ibilbideetako gai eta arazo garrantzitsuei buruzko ikuspegi orokor bat izan dezaten.

Amaitzeko, EMPLEO programak mugaz gaindiko enpleguaren arazoaren alorrean epe luzera dagozkien administrazioen arteko lankidetzak estua sustatu du. Konpromiso horrek hobeki erantzungo die herritarren beharrei eta mugaz gaindiko mugikortasuna garatzeko bideak sortuko ditu.

empleo-info.eu



AKITANIA • BERRIA • EUSKADI • NAFARROA
NUEVA AQUITANIA • EUSKADI • NAVARRA
NOUVELLE-AQUITAINE • EUSKADI • NAVARRE



Nafarroako
Gobernua

Gobierno
de Navarra

LEIET Akitania-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea
AECT Eurorégion Aquitaine-Euskadi-Navarra
GECT Eurorégion Aquitaine-Euskadi-Navarre



**Akitania-
Berrian
bizi naiz**

**Lan baten bila
nabil Euskadin**





« Sail of
Papenburg »
sariaren
banaketa,
Olu (Finlandia),
2018ko irailaren
21a.



Mugaz gaindiko enplegu eragileen lehenengo lan-mintegia 2018ko ekainaren 21 eta 22an egin zen Hendaian. Mugaz gaindiko hiru lurraldeetako (Euskadi, Nafarroa eta Akitania-Berria) enpleguaren alorreko eragileak batu zituen epe luzeko lankidetzaren estuago batean parte hartzeko, mugaz gaindiko langileen jarduna bateratzeko eta administrazio-izapide ezberdinak argitzeko (lan arloko legeria, zergak: konturako atxikpenak egitea, gizarte babesa; prestazioak eskudirutan, zaintzak, langabezia, erretiroa, lan-eskaintzen kudeaketa...). Horrenbestez, mugaz gaindiko zenbait eragile publikoren sare bat osatzeko beharra azaleratu zuen, eta administrazioetako langileek beraiek jartzen dituzten oztopoak ezabatzeak daukan garrantzia azpimarratu zuen mintegiak.

EMPLEO proiektua LLETen Jardunbide Egokien Urtekari Europarrean (EGTC Good Practice Booklet) agertzeko hautatua izan zen 2018ko uztailean. Europa osoko 21 LLETen jardunbide egokien zerrenda bat argitaratu du dokumentuak, jardunbide egoki guzti-guztiak agertu ez arren. Adibidez, enpleguaren alorrean EMLEO NAEN mugaz gaindiko lankidetzaren ohiko proiektu gisa hautatua izan zen.

Gainera, Euroeskualdeak ARFERen (Europako Mugako Eskualdeen Elkarte) mugaz gaindiko « Sail of Papenburg » saria jaso du, enplegua eta eleaniztasuna bezalako mugaz gaindiko gaiak lantzeko garatutako estrategia bateratua saritzen duena, bi proiektu europarren bidez gauzatu dena. « Empleo AE » eta « Eskola Futura » (mugaz gaindiko POCTEFA programaren bidez finantzatua). 2002. urtetik banatzen den sari horrek mugan dagoen lurralde bateko proiektu adierazgarriena edo adierazgarrienak saritzen ditu urtero. Saria Mikel Antóni eman zitzaion, Eusko Jaurlaritzako Europako Gaietarako Zuzendariari, 2018ko irailaren 20 eta 21ean Oulun (Finlandia) eginiko ARFERen Urteroko Hitzaldian.

Era berean, proiektua Hendaian aurkeztu zuten ekintzailtzaren egunean, 2018ko urriaren 19an, eta baita Espainia iparralderako Frantziako Merkataritza eta Industria Ganberak 2019ko otsailaren 8an Getxon antolatutako hamaiketako-eztabaidan ere, gaitzat honako hau zuena: « Euroeskualdea eta enplegua ».



Lanbide
heziketari
buruzko lan
eguna.

Ikaskuntza sistemaren egituraketa Euroeskualde mailan

Formakuntzaren eta ikaskuntzaren alorrean LLETak lanean jarraitu du « CoP »aren (Jardunbide Egokien Komunitatea) bidez lankidetzaren estrategikoaren hirugarren saioa ezarri eta mugikortasunaren esparruan eginiko ahaleginak sendotuz.

CoP

Mugaz gaindiko CoP 2018 proiektuaren helburua LH eskolen, euroeskualde mailako erakundearen eta beste eragile batzuen arteko lankidetzaren sendoa eta iraunkorra garatzea da. Herritarren, irakasleen, ikasten ari diren pertsonen eta abarren arteko hartu-emanen oinarritzen da, enplegarritasuna hobetzeko beharrezkoak diren gaitasunak eskuratuko dituztela bermatzeko.

Chambre des Métiers des Pyrénées-Atlantiques, Ikaslan Gipuzkoa, Tknika eta ADI-Navarrak osatutako lankidetzaren testuinguruan 3 lurralde bilerak antolatu ziren: 2018ko maiatzaren 25ean Irungo FICOBAn, 2018ko urriaren 9an Lizarrako CIP Lanbide Heziketa Zentroan eta 2019ko otsailaren 9an Baionan.

Proiektu horren esparruan, Lanbide Heziketaren eta Ikaskuntzaren Euroeskualdeko Mapa sortu zen, batez ere hiru lurraldeetako erakundearen arteko osagarritasunak garatzeko.

Era berean, Paueko eta Aturrialdeko Unibertsitateko (Baiona) « Mugaz Gaiandiko eta Lurralde Arteko Lankidetzaren » masterreko ikasleekin elkarlanean, mugaz gaindiko gaikuntza ikastaroak buruzko inkesta bat abiarazi zen institutu profesional eta teknikoetan eta ikaskuntza zentroetan. Euroeskualdeko hiru lurralde eratzaileetan zabaldu zen inkesta horren helburua ikasleen eta ikastunen mugikortasunari buruzko inbentario bat osatzea eta onuradunek dituzten balizko oztopoak eta itxaropenak identifikatzea da. Inkestaren beste xedeetako bat lan munduan mugaz gaindiko mugikortasuna sustatzeko gomendioak iradokitzea da. Emaitzak 2019ko martxoaren 28an argitaratuko direla aurreikusi da.

1.3 Lurraldejasangarria

Estrategia honen oinarria, besteak beste, honako gai hauen inguruan ardazu da: mugikortasun jasangarria, nekazaritza eta nekazaritzako elikadura, klima aldaketaren aurkako borroka, ingurumena eta turismoa.

Mugikortasuna eta Garraioa

Bizikletaren garapena

Euroeskualdeak aurrera jarraitu du Ederbidea proiektuarekin bidaiariei open datari eta open source tresnei (open street map) buruzko informazioa ematen.

Smart City

Euroeskualdeak gertutik jarraitu du Smartmob proiektuaren bilakaera, bereziki ikerketa orokorraren baldintza-agiriari buruzko hausnarketan parte hartuz eta mugaz gaindiko eskaintzen mapa sortzeko proiektuaren baldintza-agiriak elkarlanean idatziz.

Mugaz gaindiko autobusaren ikerketa juridikoa

Euroeskualdeak ikerketa pilotu bat egin zuen (beste muga batzuetan aplikagarria/egingarria) errepide bidezko mugaz gaindiko garraio publikoen zerbitzuak ezartzeko aukera tekniko eta legalak identifikatzeko xedearekin (Ernst&Young-ek burutua). Euroeskualdearen proiektua, ikerketa hau babestuz eta Transfermuga 2-k finantzatuta, Biarritzeko aireportuaren eta Donostiaren artean mugaz gaindiko autobus azkarren lehenengo eskaintza publikoa sustatzean datza.

Open Data garraioak

Euroeskualdeak lurraldearen garraio datu guztien irekiera amaitu du dagoeneko, garraioen datuek sarbide nazional bat izatearen europar erronkari erantzuteko helburuarekin batik bat. Etalab-ek (estatuko startup bat) estatu mailan egindako lanarekiko bitartekari funtzioa beteko du.

Bidaiarientzako informazio ataria eta ibilbide kalkulatzaila

Euroeskualdeak bere ibilbide kalkulatzaila erabiltzen jarraitu du eta AVEaren datuak txertatu ditu bertan. Bere gardentasun politika betetzen jarraitu du baita ere, POCTEFaren ikerketa guztiak erreferentziako webgunera bilakatu den **Transfermuga.eu**, atarian argitaratuz.



Trenbideak

Euroeskualdeak bere ekarpena egiten jarraitu du mugaz gaindiko lurraldea trenbide bidez lotzeko saiakeran Transfermuga 2 (POCTEFak finantzatua) proiektuaren esparruan bi ikerketa gauzatu: bata trenbide-zerbitzuen antolaketari buruzko ikerketa legala eta bestea eskariari buruzko ikerketa. Emaizak proiektu horren ondorioekin batera aurkeztu ziren Angelun 2018ko ekainaren 19an.

2018an, Euroeskualdeak mugaz gaindiko garraioari buruz lortu duen esperientzia eta ezagutza saritua izan zen; bi sari europar jaso zituen. LLETak « *Le Monde Smart Cities* » saria irabazi zuen eta « Best EGTC Awards » sarietako bigarrena ere eman zioten. Transfermuga proiektuaren inguruan garatutako estrategia zela eta saritu zuten bi kasuetan.

« Le Monde Smart Cities » sari handia

« *Le Monde Smart Cities* » sari handia **Transfermuga** proiektuari egokitu zitzaion plataforma irekia den heinean, eta europar ikuspegi duen proiektu gisa mugaren bi aldeetako garraio publikoaren eskaintzari buruzko informazio orokorra eskaini eta norbanakoaren autoaren erabilera txikitzeko helburua duen heinean. Politika publikoa ere saritu zitzaion: mugaz gaindiko pertsonen lekualdaketa errazteko konponbide ugari proposatu zituzten lurraldeei entzutean oinarritzen zen proiektua zen. Azkenik, bere dinamikaren balioa ere aitortu zitzaion Transfermugari, FEDER « POCTEFA » Mugaz Gaindiko Europar Programaren esparruan 2012an abiatutako programari.

Eragile askorekin sortutako eta mamitutako dinamika, hain zuzen ere: organismo publikoekin, turismo bulegoekin, garraio operadoreekin edo baita tokiko enpresa txiki eta ertainekin ere (Okina, Bien Sûr, Pesa ...).

« **Mugaz gaindiko Europa sortzen** » sariari dagokionez (Lurralde Lankidetzarako Europar Elkartearen Plataformak ematen duena, Europar Batasuneko Eskualdeen Batzordearekin batera), mugaz gaindiko bidaiarientzako lehenengo informazio sistema saritu du, lau teknologia zutabe osagarritan oinarrituta dagoena:

• **Bidaiarientzako informazio atari bat**

4 hizkuntzatan dago eta garraibide guztiei buruzko informazioa eskaintzen du: bizikletak, itsasontziak, autoak, taxiak, autobusak, trenak eta hegazkinak. Geltoki eta geralekuei buruzko informazioa ere ematen du: tren geltokiak, autobus geltokiak, aparkalekuak, aireportuak. Prezioak eta ibilbideak alderatzen dituzten plataformetarako sarbidea ematen du. Horrenbestez, 4 hizkuntzatan dagoen ibilbide kalkulatzailerak hainbat sare hartzen ditu barnean: Couralin, Yego, Chronoplus, Hegobus, Transports64, TER, AVE, Lurraldebus, Euskotren, Pesa eta Irunbus.

• **Marka grisak** lau azpiegiturretan ezarrita daude, Biarritzeko aireportuan, Hegbusen, Mac-en eta Baionako Turismo Bulegoan.

• **Garraioen Open Data plataformak**, garraio datuen 20 sistema ireki biltzen ditu.

• **Mapatze irekiaren sistema**, Euroeskualdeak egunero lantzen duena.

Epaimahaiak azpimarratu zuen **Transfermuga.eu** informazio webgunea zabaldu aurretik, ez zegoela garraio ezberdinak batzen zituen informazio sistema eleanitzik. Epaimahaiak oso aintzat hartu zuen esperientzia honek mugan dauden beste eskualde batzuetan aplikatzeko duen gaitasuna.

Euroeskualdeko Batzarreko bi kideri eman zitzaizen saria: Mikel Irujo Nafarroako Gobernuaren Bruselako Ordezkarari eta Isabelle Boudineau Eskualdeen Batzordeko Akitania Berriko ordezkarari.



**SMART CITIES
LES PRIX DE L'INNOVATION**

Les mutations de la ville

Le Monde



LLET-en
plataformaren
zariaren
banaketa,
Bruselas 2018ko
urriaren 8a.

Nekazaritza - Nekazaritzako Elikagaiak - Basogintza

Basoak - Zura

2018ko azaroaren 22an, Nafarroako lehendakari zapean antolatu zen lehenengo « Basoa - Zura » lantaldea, euroeskualde mailako ekonomiaren sektore garrantzitsu batzuen inguruan. Funtzio anitzeko ikuspegi batetik abiatuta, landaren garapena bioaniztasunaren babesarekin eta baliabideen balioespenarekin uztartuz, partaideek gai ezberdinak lantzea erabaki zuten: estatistika adierazleak sendotzea, trebakuntza, zurezko eraikinak, lobby-en jarduna europar mailan, nekazaritza politika komunarekiko (PAC) ekarpenak.

Urte berean argitaratu ziren baita ere « Euskabiom » lankidetzaren estrategikoaren emaitzak (Baso Jabetzako Eskualde Zentroa, Hazi eta Forespir buru zirela), biomasa lortzeko baliabideen ahalmenaren azterketa garatzeko, Euroeskualdeko balio-katea deskribatzeko eta Pirinioetako lurraldeen eskalan aplikatu daitekeela bermatzeko xedearekin.

Nekazaritza - Nekazaritzako elikagaiak

2017an onartutako bi nekazaritza lankidetzak urte osoan zehar garatu ziren.

RESELoC proiektuak produktu ekologikoak edota tokian tokikoak jabetzeetan txertatzeak eskaintzen dituen aukerak aztertzen ditu. Izan ere, gizarteak eta erakunde publikoek erakutsi duten interesak jantoki kolektiboetan produktu ekologikoak eta bertakoak kontsumitzea bultzatu du eta merkatu berri horren beharrezan erantzuteko sektoreak bere aldetik ikuspegi berri bat ezarri beharra dauka, batez ere kontratazio publikoari, logistikari eta produktu horien prestaketa eta banaketari dagokionean. Bi bilera tekniko egin ziren 2018an, lehenengoa Saintes-en urriaren 17an eta bigarrena Nafarroan azaroaren 15ean.

Era berean, « *Botrytis-Cinerearen inguruan osatutako Euroeskualdearen Partzuergoak* » ikerketa alorreko bere lanarekin aurrera jarraitu zuen.

Azkenik, aurrez aipatu den bezala, 2018ko proiektu-deialdien esparruan beste bi lankidetzak hautatu ziren eta otsailan ekin zioten lanari: **Toki-Pommes**, Euroeskualdeko eremuetara egokituta dauden bertako sagarrondo bariatateak identifikatu eta hautatu nahi dituen proiektua eta **DANEGAZ**, JDBpean ekoiztutako Euroeskualdeko gazten inguruan berrikuntza sare bat sortzeko helburua duena.

Azkenik, Euroeskualdeak interes handiarekin jarraitu du Ardi proiektuaren bilakaera (POCTEFaren bidez finantzatua), Neiker-Tecnalia-ren (Euskadi) gidaritzapean, bertako Manex eta Euskal-Biarnesa eta horien baliokide den Latxa esnetarako ardi arrazen lehiakortasuna eta jasagarritasuna hobetu nahi dituen. Proiektu horrek bikainki osatzen du Euroeskualdeak Pirinioen bi aldeetan arden industria egituratzeko daukan estrategia, Danegaz (jatorri deitura babestua duen gazta) lankidetzaren estrategikoarekin elkarlanean, ardi esnearen ekoizpena balioesteko lanean jarduten baitu neurri handi batean.



« Basoa-zura »
Lantaldea,
Hendaia 2018ko
azaroaren 22a.



Ingurumena

Klima aldaketari buruzko « Uhinak » mugaz gaindiko kongresuaren inguruan ezarritako lankidetzaz harago, Euroeskualdeak bere ekarpena egin zion « URBANK2050 »eko hautagaitzarako txostenari, Life IPren proposamen baterako IHOBE eta Azti-Tecnaliak aurkeztu zutenari.

Turismoa

2017ko proiektu-deialdiaren barruan, « Hermione-Albaola / Sakanako Garapen Ekonomikoaren Agentzia » lankidetzako kideei laguntza bat eman zitzaien Euroeskualdeko hiritargoaren esparruan, Euroeskualdeko « Gabier » (marinel) gazteek Hermione-ren VIAJE 2018an parte hartzeko aukera izan zezaten, 2018 Pasaia Itsas Festibala zela eta (maiatzaren 17-21) Euskadin geldialdia egin baitzuen itsasontziak.

Proiektu hori, jadanik itsas ondarearen eta turismoaren sustapenean sartua zegoena, Pasaia Lehenengo Itsas Festibaleko programan ere txertatu zuten (maiatzaren 17tik 21era). Klima baldintza gogorrak zirela eta, azkenean Hermione maiatzaren 23an iritsi zen Pasaia (eta han gelditu zen maiatzaren 27ra arte), baina bere presentzia bisitari euskaldun askorekin ohoratua izan zen.



Pasaia itsas
festibala...
Hermione-ren
zain.
2018ko maiatza.

2

Finantza instrumentuen balantzea

2.1 Akitania-Berria Euskadi Nafarroa proiektu-deialdia	21
2.2 Euroeskualdeko lankidetza estrategikoak	22

2.1 Akitania-Berria Euskadi Nafarroa proiektu-deialdia

Ordura arte bezala, 2018. urtean proiektu-deialdia bi saiotan banatu zen. Lehenengo saioak, 400.000 €ko aurrekontuarekin, kultura, hezkuntza, gazteria, lanbide heziketa, eleaniztasuna eta kirola estaltzeko helburua zeukan.

Bigarren saioa, 300.000 €ko aurrekontuarekin, jakintzaren ekonomiara bideratu zen, eta kasu horretan sektore garrantzitsu guztiek parte hartu zezaketen proiektu-deialdiaren prozeduran.

Dena den, hautaketaren amaieran soilik 3 sektore hartu ziren aintzat:

- Nekazaritza eta nekazaritzako produktuak
- Aeronautika, abangoardiako ekoizpena
- Osasuna eta Bio-osasungintza

Proiektu-deialdiaren hautaketa - Lehenengo saioa

Jarraian Akitania-Berria Euskadi Nafarroa proiektu-deialdiaren lehenengo saioko hautaketa taula aurkituko duzu.

Proiektu-deialdiaren hautaketa - Bigarren saioa « Euroeskualdeko lankidetzak estrategikoak »

Jarraian proiektu-deialdiaren bigarren saioko proiektu-deialdia aurkituko duzu.

Proiektuen deialdia	Esleitutako laguntza	Emandako laguntza	Emateke dagoena	Ordaintzeke dauden proiektuak
2015 (2. saioa)	199.500 €	164.565 €	30.000 €	1/4
2016 (1. saioa)	250.000 €	230.366 €	6.000 €	1/19
2016 (2. saioa)	185.501 €	167.350 €	18.150,60 €	1/4
2017 (1. saioa)	399.864,79 €	268.682,43 €	128.816,36 €	10/23
2017 (2. saioa)	280.670 €	112.268 €	168.402 €	5/5
2018 (1. saioa)	399.508,13 €	149.195,55 €	250.312,58 €	19/19
2018 (2. saioa)	299.984,31 €	119.993,72 €	179.990,59 €	5/5
GUZTIRA	2.015.028,23 €	1.212.420,70 €	781.672,13 €	42

2.2 Euroeskualdeko lankidetza estrategikoak

2018ko hautaketa

2018an 6 lankidetza estrategikoak garatu eta berritu egin ziren:

2 lankidetza berri:

- **Euskal Errugbi Federazioa**
Euskal errugbiarentzat mugaz gaindiko esparrua
Esleitutako dirulaguntza 60.000 €
- **Association filière du Porc Basque Kintoa**
Liburu genealogiko bateratua sortzeko errolda
Esleitutako dirulaguntza 18.000 €

4 berrikuntzak:

- **Euroeskualdeko Erasmus Programa**
Esleitutako dirulaguntza 60.000 €
- **aquitaine.eus**
Hartu-eman artistikoak
Esleitutako dirulaguntza 50.000 €
- **CoP**
Ikaskuntza eta etengabeko prestakuntza
Esleitutako dirulaguntza 40.000 €
- **Zubiak**
Euskarazko irratsaioa
Esleitutako dirulaguntza 50.000 €

Urtea	Egikaritutako	Aurrekontua	Egikaritzeke dagoena	
2017	250.000 €	165.132 €	15.000 €	BIHARTEAN 9.000 € EUSKAMPUS 6.000 €
2018	274.400 €	196.400 €	78.000 €	Mugaz gaindiko lankidetza 12.000 € COMUE 18.000 € aquitaine.eus 15.000 € Zubiak 15.000 € Euskal errugbi federazioa 18.000 €
GUZTIRA	524.400€	361.532 €	93.000 €	

N°	Sektorea	Proiektuaren izena	Taldeburua	Kidea	Kidea	Kidea	Aurrekontua	Diru laguntza
1	Agri/Agro	DANEGAZ	Fundación HAZI Fundazioa	DOP Idiazabal	AOP Ossau-Iraty	Fédération régionale Caprine (FRCAP) + INTIA + DOP Roncal	136.950 €	65.236,13 €
2	Agri/Agro	TOKI-POMMES	Universidad Pública de Navarra	INTIA	Neiker	Conservatoire végétal Régional d'Aquitaine	92.880 €	44.243,39 €
3	Santé	CARDIOREG	Centro de Investigación Médica Aplicada (CIMA)	Viscofan SA	Université de Bordeaux	Urtasun	150.000 €	71.452,50 €
4	Fabrication avancée	FCOMP	Naitec	ESTIA	Microlan	HEGAN	150.500 €	71.452,50 €
5	Fabrication avancée	DARWIN	Mondragon Goi Eskola Politeknikoa S.Coop.	TEDCAS Medical System	ESTIA EESC		99.926,08 €	47.599,79 €
Guztira							630.256,08 €	299.984,31 €

Nº	Proiektuaren izena	Taldeburua	Kidea	Kidea	Kidea	Kidea	Kidea	Kidea	Kidea	Kidea	Kidea	Aurrekontua	Diru laguntza
1	Sorginak	Fundación Centro De Arte Contemporáneo de Huarte	Coop	Azala Espacio	ESAPB École Supérieure D'art Pays Basque							48.100 €	12.236 €
2	9 Ipuin	Jakinola	Etxegiroan	Ane Ablanedo								30.000 €	13.800 €
3	Ainarak Web Doka	Zinea Sortzen SI	601 Producciones	Aldudarrak Bideo								79.940,84 €	35.973,38 €
4	Aztihitza	Herrima	Prefosta	Asisko Urmeneta								28.000 €	12.880 €
5	Tralhaires, Per Delà lo blu de las montanhas	Lo Nau	Soinuenea Fundazioa Herri Musikaren Txokoa	Ortzadar Euskal Folklore Elkartea dit Ortzadar								116.000 €	17.480 €
6	In-Flux	Novanima Productions	Arena Comunicación	Esopo Occitania Creativa	Marmoka Films							100.000 €	27.000 €
7	Babes Toki	Association Elirale	E.P.E.L Castel Ruiz	Elorrioko Udala								40.000 €	18.400 €
8	Esker 1000	Euskal Irratiak	Musika Bulegoa									92.400 €	22.500 €
9	Dantzagunen Jarraipena	Nafarroako Dantzarien Biltzarra	Gipuzkoako Dantzarien Biltzarra	Iparraldeko Dantzarien Biltzarra	Bizkaiko Dantzarien Biltzarra	Arabako Dantzarien Biltzarra						17.275 €	8.119,25 €
10	Plusd'Acc	Fundación Koine-Aequalitas	Avifes	EVAH Espace de Vie pour Adultes Handicapés								30.000 €	13.800 €
11	Itsas Laminak - Sirenas - Sirènes	Malandain Ballet Biarritz	Fundación Cristina Enea Fundazioa	Museo de Educacion Ambiental del Ayuntamiento de Pamplona								63.098 €	28.394,10 €
12	Trans(M)Enas	Zabalduz Koop	Maison d'Enfants à Caractère Social (MECS) de Castillon	Ekie/ Agintzari Nafarroa								32.900 €	15.134 €
13	Mugazabaldur Bidean	AEIE-GEIE Limitis Forum	Hezizerb Elkartea	Asociación de Vecinos de Behobia	Céméa Nouvelle Aquitaine	Asociación Navarra Nuevo Futuro	Foro Ciudadano Irúnés					32.800 €	14.720 €
14	Euskarabentura Espedizioa 2019	Euskarabentura Elkartea	Euskaldunon Biltokia	Zortzi Probintziak								130.002,64 €	27.000 €
15	Kompar	Nazaret Zentroa	Easo Politeknikoa	IES Eskurtze Bhi	Tolosako Inmakulada Lanbide Ikastola	Meka Elgoibar	Politécnica Navarra	Etcharry Formation et Développement	ITS Pierre Bourdieu	IRTS Nouvelle Aquitaine	AFEC Bayonne	110.185 €	48.481,40 €
16	e-Learning Accesible	Fundación Asmoz de Eusko Ikaskuntza	Aptes	Antic Pays Basque	Sistema Formación y Empleo							42.000 €	18.400 €
17	Gaztesare	Universidad del País Vasco (UPV-EHU)	Iker Umr 5478	Universidad Pública de Navarra (UPNA-NUP)								60.000 €	27.000 €
18	Xistera Proiekttoa	Euskal Herriko Xistera Kluben Kirol Kluba	Xistera									239.578 €	26.000 €
19	Ziburu Gaztedi-Unica Errugby Kultura	Gaztedi Rugby Taldea	La Unica Rugby aldea	Ciboure R.C								26.500 €	12.190 €
												Guztira	399.508,13 €

3

Finantzen balantzea


2018ko aurrekontuaren diru-sarrera eta gastuen oreka 3.297.000 € kopurukoa izan zen.

Gastuen sailak **1.902.552,75 €ko** zenbatekoa izan zuen eta diru-sarreraren zenbatekoa **2.104.273 €koa** izan zen.

Ondorioz, ekitaldiak urteko superabit hau izan zuen: **+ 201.720,25 €** (kapitalizatutako soberakina kanpoan utzita: 1.024.511,89 €).


Gastuak 2018

Gastu motak	Aurreikusitako gastuak	Izandako gastuak	Egikaritze % / aurreikuspenak
Izaera orokorreko gastuak	871.030 €	644.126,75 €	73,95%
Langileen gastuak	420.000 €	313.189,60 €	74,57%
Amortizazioa	29.183,07 €	29.183,07 €	100%
Ordaindutako dirulaguntzak	1.885.970 €	913.423,33 €	48,43%
Inbertsioen atalean egindako transferentziak (agindutako eragiketak)	30.816,93 €	-	-
Kapital gastuak	60.000 €	2.630 €	4,38%
GUZTIRA	3.297.000 €	1.902.552,75 €	57,71%



Diru-sarrerak 2018

Diru-sarrera mota	Aurreikusitako diru-sarrerak	Egikaritutakoak	Egikaritze % / aurreikuspena
Eskualdeen kuotak	1.650.000 €	1.610.000 €	97,58%
LLETaren kuotetatik gelditzen den saldoa	40.000 €	40.000 €	100%
Atzeratutako soberakinak (agindutako eragiketak)	1.024.511,89 €	1.024.511,89 €	100%
Beste erakunde batzuen ekarpenak (POCTEFA, ibilbideen kalkulatzaila, hainbat diru-itzulketa...)	522.488,11 €	425.089,93 €	81,36%
Inbertsioen etekinak	60.000 €	29.183,07 €	48,648%
GUZTIRA	3.297.000 €	2.104.273 €	63,82%



Oharrak
